

Karkara

karkara.com

 **Orioko eta Aiako aldizkaria** · 2015eko urtarriaren 30a · 358. zenbakia. 26. urtea



Nazioarteko estropada, mende erdia ospatzeko

Orio Arraunketa Elkarteak 50 urte betetzen dituen honetan, nazioarteko estropada berreskuratu du. 1968an antolatu zuen lehena.

8

Elkarrizketa
Tiburtzio Etxeberria

13

Adarretatik helduta
Ander Atorrasagasti

20

Argazkiak
Hondartza neguan

+

Gehigarria
Literatur lehiaketa

Matrikulazio epea **zabalik**



Bihotzeko ikastola

ORIOKO HERRI IKASTOLA

Matrikulazioa Otsailaren 2tik 13ra

GURASOENTZAT INFORMAZIO BILERA Urtarrilak 21, asteazkena, 17:00etan euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz
ATEAK IREKITAKO EGUNA Urtarrilak 24, larunbata, 10:30etatik aurrera nahi duzuenen gerturatu

Bulego ordutegia 08:30-13:30 / 14:30-18:30 • Tel. 943 834 704 / 943 894 360

e-posta: orio@ikastola.net www.oriokoikastola.net



358

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredaktore burua

Miriam García

Erredakzio taldeaOnintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzquidun**Publizitatea**

Idurre Telleria

**Ale honetako
kolaboratzaileak**Aitor Arregi
Ander Atorrasagasti
Eneko Balerdi
Aizpea Esnaola
Mikel Etxeberria
Iñigo Gaiton
Iñaki Gurrutxaga**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzailleakNora Pielago eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzun-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.**LAGUNTZAILEAK**

Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

Gernikako arbola ihartuta hil da.

HASI BERTSOTAN

IÑAKI GURRUTXAGA (DOINUA: GERNIKAKO ARBOLA)

Lehortu den arbolari

1Gernikako arbola
lehortu den hontan
garena bera ere
jarri da kolokan...
sustraiak zertan izan
beti-betikotan,
gero adarrek gora
ez egitekotan?**2**Fruitu berri gutxitxo
arbola zaharretik,
haize baldarrak eskuin
eta ezkerretik...
hobe da enbor zaharrak
kendu bizkarretik
etorkizuna bera
lehortu aurretik.**3**Sustraiak, ai, sustraiak...
nion arestian
leku berean daude
denbora guztian.
Aurreratu nahi bada
bide amestian
ezin ditugu izan
oinak lur azpian.

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

karkara@karkara.com



karkara.com

Nire kexua udaltzaingoiari

Gaur nire mina, haserre eta inpotentzia agertzen saiatu nahi dut, duela hilabete izandako gertakari batengatik.

Abenduaren 18an, arratsaldeko zazpiak aldera, istripu txiki bat gertatu zen moila eta Xixarioko bueltan: oinezko batek eta auto batek talka egin zuten. Oinezkoa lurrera erori zen eta kotxeko gidaria oso urduri zegoen. Zorionez ez zen ezer larria gertatu; zauri txiki batzuk, betaurrekoak hautsita, galtza urratuak eta horrelako txikikeria batzuk.

Oinezkoa nire familiakoa zen eta, gertatutakoa ikusi zuen batek deitu ninduen abisua emateko. Iritsi nintzeanean han ziren testiguak, baina udaltzainak falta ziren. Esan zidaten zerbitzuan ez zegoen udaltzain bat izan zela han, baina joan egin zela.

Nire haserre udaltzaingoaren pasibitateagatik da. Oinezkoaren familiari ez zioten deitu ere egin, bertan zeudenen deiagatik jakin genuen gertatutakoa. Hurrengo goizean bulegora joan ginen, zer gertatu ote zen jakin nahian. Udaltzain batek ez zuela txostenik aurkitzen erantzun zidan, eta nagusiari dei egin zion. Hura, bulegora jaitsi eta abokatu diskurtsua eman zidan. Nik esan nion zer gertatu zen, gidaria nor zen eta txostena non zegoen jakin besterik ez nuela nahi. Baina ez nuen erantzunik jaso.

Istripuaren egunean bertan izan zen udaltzainarekin hitz egitea lortu nuen, eta esan zidan gidaria bera jarriko zela gurekin harremanetan, ezin zigula esan nor zen.

Zarauzko anbulatiora joan ginen,

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

eta han medikuak galderaz josi gintuen, baina guke ez genuen erantzunik. Nik ez nekien zehatz-mehatz zer gertatu zen, eta oinezkoak ere ez zuen ongi gogoratzen. Medikuek esan ziguten Ertzainetara joateko, eta han bideratuko zutela dena. Hala izan zen, azkenean gidariarekin hitz egitea lortu genuen –jator egon zen gurekin– eta han bukatu zen gure abentura.

Honekin guztiarekin hainbat galdera datozkit burura: zertarako ordaintzen dugu oriotarrok udaltzainen lana? Isunak jartzeko bakarrik al dira? Nik uste nuen edozein oriotarri laguntzeko ere bazirela, premia agertzen denean, baina oso deskuidatuta nengoen. Zerbait gertatzen denean, familiari noiz deitzen zaio?

Denak txarrak ez direla, horren zailtzarik ez dut, eta eskertu nahiko nieke deitu zidanari, beren testigantza eskaini zutenei, Zarauzko ertzainei eta medikuari, emandako laguntzagatik.

Gertaera hori azkenekoa izango den ustez, zerbitzuan ez zegoen udaltzain hari, bere egite onagatik, eta mila esker gidari jatorrari. ■ **Candida Arruti.**

Harribilek hogeit urte

Hogeit urte pasa dira Harribil dantza taldeak bere ibilbidea hasi zuenetik; Gortzintzi dantza taldeko kideek, Orioko itsasertzeko harri biribilari izea hartu eta beren talde propioa sortu zutenetik. Bi hamarkadatan jende ugari pasa da taldetik, eta istorio asko gertatu dira kontatzeko.

Egun bateko ospakizuna egin nahi dugu Harribilekok, bertan aritu diren guztiekin. Apirilaren amaieran egin nahi dugu ekitaldia, eta buru-belarri gaude hori antolatzen. Harribilen noizbait ibili diren guztiekin ospatu nahi dugunez, antolatu ere hala egin nahi dugu, guztion festa izan dadin. Horregatik, otsailaren 9an, astelehenean, bilera bat egingo dugu, eta talde-tik pasatu diren guztiei zabaltzen diegu deialdia.

Parte hartu nahi duenak, 20:00etan Kosta Tailerrera gerturatu beharko du.

■ **Harribil Dantza Taldea**

Laguntza izoztuak

Datu makroekonomikoak hobetzen ari dira —agintariekin krisiaren amaiera iragartzen dute urtero— eta zerga bilketa handitu egin da —zerga erreformei esker, besteak beste—. Baina euskararentzako eta euskarazko hedabideentzako dirua testuinguru ekonomikoarekin lotzen duten erakunde horietan berek izoztu egin dituzte diru laguntzak. Baita aurrekontu

Katu Moria
albaitari-za klinika

ESTROPALARI, 10
20810 ORIO
tel. 943 11 66 99

Larrialdia-ak
668 89 11 29

www.katuhoria.com

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

KVKKV ARRI

943 83 09 84

aita Iertxundi, 36
ORIO

orokorrak igo badituzte ere. «Euskal hedabideek azken urteotako diru laguntza publiko txikiena izango dute aurtan», esan du Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak, Hego Euskal Herriko administrazio nagusien aurrekontuak aztertu eta gero. Eusko Jaur-laritzak ia milioi bat euro gutxiago banatu zuen 2011 eta 2012 artean, eta geroztik bere horretan mantendu du jaitziera; Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiek izoztu egin dituzte; Arabakoak hutsaren hurrengoa ematen du; eta Nafarroakoak ezta hori ere, ezer ez, zero. Hekimenek berak, datu argigarrria eman zuen iazko azaroan: Jaur-laritzak 2013an publizitate eta komunkazioko diruaren %2 baino gutxiago gastatu zuen euskal hedabideetan.

Oso urrun daude, beraz, utopia dirudite, sektorearen eskaerak: akordio es-

trategikoa, euskal hedabideen garrantziaren eta lanaren aitorpena... Haizeak urtero eramaten ditu Euskararen Nazioarteko Egunean egindako adierazpen instituzional arranditsu bezain hutsalak. Euskara oraindik ere bazterreko gaia da administrazio gehienetan. Euskal hedabideak, ezta hori ere.

■ **Jakes Goikoetxea.** Berrian argitaratua

Korrika egiteko taldeak

Orion korrika egiteko taldeak jarriko dira martxan. Ez du axola adinak ezta gaitasun fisikoak ere, eta ordutegia malgua izango da. Goizez edo arratsaldez geratzeko aukera egongo da eta talde desberdinak osatuko dira: neskenak, mutilenak, mixtoak eta proba bereziak prestatzeko taldeak –Behobia, Maratoi Erdia, 10km eta 5km...–.

Egutegi eta ordutegiak zehazteko jarri nirekin kontakutan. Tf:690055840. Email: hossainkaanache@gmail.com

Honako datuak bidali: izen abizenak, adina, helburua, entrenatzeko duzun egutegia eta ordutegia, aurretik kirola egin duzun, zein kirol egin duzun.

Maila guztietako jendeari zuzendua daude taldeak: inoiz korrika egin ez dutenei, oinez ibiltzea gustuko eta korrikara saltoa eman nahi dutenei, lasterketatan hasteko gogoak dutenei, beren markak hobetu nahi dituztenei, errendimendua helburu dutenei eta, batez ere, talde giroan kirola egin nahi duten guztiei.

Taldeko kide direnek hainbat deskontu eta abantaila izango dituzte. Animatu, utzi lotsa atzean eta mugitu zure garuna, laguna! Ez zara damutuko! ■ **Hossain Kaanache**

ZORIOTXARRAK!

Zaindu ingurumena

Badira egunero-egunero oinez ibiltzera joaten direnak; eta, egunero ez bada ere, maiz egiten dutenak. Orion aski ezaguna da Itsaspeko buelta.

Ohitura handia dago Itsaspeko igo eta hondartzara jaistekoa; edo alderantziz. Asko eta asko dira *miradorean* atsedean hartzen dutenak, baina, gutxi, garbi uzten dutenak.

Zaborrontzia gainezka egoten da, zaborra lurrean. Latak, ogitartekoa biltzeko papera, poltsak... eta beste hainbeste zakar.

Naturaz eta Itsaspeko bueltaz gozatu nahi baduzu, zaindu ingurumena.

JAOTAKOAK

- Samara Cordero Gonzalez, Orion, urtarrilaren 23an.
- Alan Isai Anrango Castañeda, Orion, urtarrilaren 21ean.
- Goretti Aranalde Altuna, Orion, abenduaren 30ean..
- Salma Ziani El Kattoumi, Orion, abenduaren 23an..
- Aimar Elgorriaga Aguirre, Orion, abenduaren 15ean.

EZKONDUTAKOAK

- Ainara Castro Larrañaga eta Jose Enrique Moran Gimenez, Orion, abenduaren 11n.

HILDAKOAK

- M^a Jesus Luloaga Elizaondo. 66 urte. Orion, 2015eko urtarrilaren 22an.
- Jesusa Aierbe Arzak. 96 urte. Orion, 2015eko urtarrilaren 21ean.
- Joakin M^a Azpiroz Zuloaga. 74 urte. Aian, 2015eko urtarrilaren 3an.
- Lorenzo Albeniz Etkezurieta. 85 urte. Aian, 2015eko urtarrilaren 2an.
- Juana Azkue Azkue. 84 urte. Aian, 2014ko abenduaren 22an.

Eskela edo urteurreneko gogoan-garria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27

Kinkiladenda- Ume arropa



www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

75eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

Ile apaindegia

MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - behea
Tel. 943 13 47 29
ORIO



Seguros Bilbao

Orioko ordezkaria

Santi Barranco
Telf.: 618581398
Arizaga, 2 - 2º ezkerre
20810 Orio (Gipuzkoa)

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com



Joakin Gozategi Kukuarrin bere familiarekin. JOAKIN GOZATEGI



Goizean lasterka, gauean errenka. KARKARA



Baltasar plazara iristen. KARKARA

Ilbeltza, negu gorrian

U 2014 urte zaharra ez du berehalakoan ahaztuko Joakin Gozategik, 730. aldiz igo zen Kukuarriko tontorrera 2014ko urtarrilaren 1etik, segidako 365 egunetan. Egutero, egutero, egutero... bi aldiz... bi aldiz etxetik Kukuarrira. Batean kale eginez gero, bestean hiru aldiz joan behar, edo lautan. Nik ez dakit meritua edo egoskorkeria den... edo biak batera.

Halere, ordu batzuk geroago, gauaren hotzean, ez zebilen Joakin tabernaz taberna, *goralden*, errekorra ospatzen. Goizean korrika egin zuten batzuk bai, bestelako ibilietan zebiltzan ordu txikitik. Kubata asko eta San Miguel gutxi, regetoi asko eta rock gutxi. Kanpoan izugarritzko hotza egin arren, Gure Txokon saiatu ziren giroa epeltzen: *Eva Maria se fue, buscando el sol en la playa* jarriaz. Imajinatu ditzakezuen horietan bai, brillantina eta guzti, primeran! Goraldeago berri, esan bezala, kubata eta regetoia besterik ez, esate baterako... eskerrak Kalakarin DJ EM jarri zen musika jartzen, puff! Arnasa. Kanpoan erretzeko ere nahikoa lan zen gau hotz hartan!

Egun batzuk geroago, kabalगतको karameluak jasotzen ziren bitartean, betiko galdera ibili zen ahoz-ahoz: Zein da Meltxor? Gaspar? Eta bere pajea? Zein ondo margotu duten aurtan Baltasar!

Horrekin bukatu ziren Gabonak, gehienok behiak tresabian bezala pasako genituen egunak, jan eta jan; baina, plateran jatekoa dugun artean, egun horietan plateretako hain egoten da *goxua*, ezta? Bueno, ba horrelaxe hasi zen aldapa gora, ilbeltza, hil beltza: kaleetako tristura, plateretako, paper eta apunte aurrekoa, kartilletakoa... zer entzun dut horik? Txotx!

KARKARIÑOAK

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

Gabon TABERNA

- ✓ Pintxoak
- ✓ Plater konbinatuak
- ✓ Ogitarrekak

943 83 06 09

kutixi kafetegia
GOSARI GOXOAK

Aritzaga 9, 20810 Orrio
TF: 943 13 15 17

Nola gogoratzen duzue 1968ko lehen nazioarteko estropada?



“Oriok irabazi zuela ondo gogoratzen dut”

Jende asko ibili zen 1968an eta 1969an, oso famatua egin zen. Kanpotik jende ugari etortzen zen eta gu hortxe, zubian, egoten ginen estropadak ikusten. Jende gehiena hor biltzen zen, zubi inguruan. Gogoan dut Oriok irabazi zuela, hori ondo gogoratzen dut.

Estropada giro polita zegoen, jendea arrauna ikustera etortzen baitzen. Nik 38 urte nituen orduan; eta orain, ahal badut, berriz ere ikustera joango naiz. Festa dotorea izango da. Uztailean egingo dena ere polita izango da oso, arraunaz gain uretako beste diziplinak ere egongo baitira: surfa, igeriketa... 600-800 kirolari etorriko direla diote.

Domingo Arruti



“Oroitzen dudan guztia positiboa da”

Oroitzen dudan guztia positiboa da. Atzo gertatu balitz bezala gogoratzen dut, gainera. Esnal etxearen goiko aldetik ikusten genituen estropadak. Jende asko etortzen zen kanpotik, moila jendez gainezka egoten zen.

Orion arrauna asko bizi dugu, etxean ere zale amorratuak gara. Horrelako herri arraunzale batean dimentsio horretako estropadak izatea izugarria da. Oriok irabazi zuen gainera urte batean, zoramena izan zen. Ilusio handia egiten dit berriz egiteak, onuragarria baita herriarentzat. Uste dut garai hartan bezain beste jende etorriko dela, gutxienez.

Joaquina Campero



“Sekula ez dut hainbeste jende ikusi herrian”

Izugarrizko festa izan zen. 73 urte ditut eta sekula ez dut horrenbeste jende ikusi herrian. Orain, Kilo-metroetan eta jende mordoa izan da, baina kanpotik horrelako jendetza etorri eta guztiak plaza inguruan biltzea...

Lehendabizikoa soilik Oxfordekin jokatu zutela uste dut, eta jende pila bat etorri zen. Ondorengo urtean, Cambridge ere etorri zen. Gero hasi ziren frantsesak eta alemanak eta ekartzen. Moilan palkoa jartzen zuten eta inguruan jende pila bat egoten zen.

Ilusioa egiten dit horrelako espektakulua berririo egitea. Zaila iruditzen zait berdin-berdina egitea, orain beste estilo batekoa izango dela uste dut.

Txomin San Sebastian



“Irabazteak poza ematen du, baina, gero, kalean kirol arloak ez du axola”

Tiburtzio Etxeberria

Pala jokalaria ohia

20 urte baino gehiagoko ibilbidearekin, palan jokatzeari utzi dio Tiburtzio Etxeberriak. Hasi zen txapelketa berean, Gipuzkoakoan, esan dio agur palari, eta garaipenarekin, gainera.

MIRIAM GARCIA

2014ko kirolari onenaren sarirako izendatu zuten Tiburtzio Etxeberria – Orio, 1969–, 24 urteko ibilbideagatik. Irabazi baino gehiagotan galdu duela dio berak, baina garaipen batekin esan dio agur palari. Gipuzkoako txapelketan eman zituen lehen paladak, eta azkenak ere han ematea erabaki zuen.

Urte mordoan egin duzu palan. Zerk bultzatu zintuen hastera?

Beti etxean afizio handia egon da, gure aita oso pilotazalea zen. Eskuz hasi nintzen, baina minagatik gomako pilotara pasa nintzen. Jokatu nuen final batean Gipuzkoako Pilota Federazioko presidentea zegoen publikoan eta, antza denez, nire jokoa gustatu zitzaion. Larruzkoarekin proba egitea proposatu zidan, eta horrela hasi zen nire ibilbidea; kasualitatez.

Eta zer izan da hainbeste urtez harrapatu zaituena?

Batetik, asteroko entrenamenduetan giro ona egoteak asko laguntzen du. Bestetik, nire jokoa hobekuntzak. Gorantz zoazen bezala, zeure buruari estutzen diozu eta iristen zarela ikusteak lotu egiten du. Gurpil batean sartzen zara eta ikusten duzu goian daudenak ez daudela hain urrun.

Askok esaten dute eredu bat zarela pala munduan.

Hitz handiak dira horiek. Urte asko daramatzagu eta beti aurpegi berak gabilta bueltaka. Ni izango naiz urte gehiena daramatzanetako bat. Agian horregatik, beste batzuk gure-

tzat erreferentzia izan ziren bezala, ni izango naiz erreferentzia orain hasten diren gazteentzat.

Zein izan da uzteko arrazoia?

Azkenaldian jokatu ostean gerrialdeko minez egoten naiz. Urte batzuk egin ditut horrela, baina azkenean ikusi dut jokatzean disfrutatzen dudanak ez duela gero sufritzen dudana baretzen. Pena ematen dit maila onean nembilelako, baina garbi dut gorago ez nintzela joango.


Txapela irabazita esan diozu agur palari.

Erabaki nuen Gipuzkoako Txapelketan esango niola agur palari, nire lehen txapelketa ere hura izan zelako. Irabazi egin nuen eta gustura geratu nintzen, baina, irabazi ez banu ere berdin-berdin izango zen. Azken finean, nik badakit nire ibilbidea zein izan den eta partida bat gehiago da ibilbide luzean.

Ez da irabazi duzun txapela bakarra, mordoan eraman dituzu etxera. Gordeta dituzu denak?

Beti esaten dut txapelketa askotan aritu, askotan galdu eta tarteka irabazi dudala. Egia da beti hor ibili garela, baina irabazi baino askoz gehiago galdu dugu.

Txapelak eta kopak etxean ditut, hala ere, ez diet balio gehiegi ematen. Kirol ibilbideko lorpenak dira, baina arlo pertsonalean ez didate gehiago ematen. Pertsona gisa askoz gehiago ematen dit bide horretan ezagutu dudan jende guztiak. Txapelketak irabazteak momentuko poza ematen du,



Pilota munduarekin kontaktuan jarraitzeko asmoa du Etxeberriak. KARKARA

“Pertsona gisa askoz gehiago eman dit bidean ezagutu dudan jende guztiak, txapelak edo kopak irabazteak baino”

baina kalera irtetean kirol arloak ez du inporta, beste balore batzuk behar dira.

Gipuzkoako kirolari onena izateko hautagai izan zinen 2014an. Nola bizi zenuen hori?

Federazioak ni izendatu ninduen hautagai, ez 2014ko lorpe-negatik, nire ibilbideagatik baizik. Pozez hartu nuen hainbeste pilotariren artean ni aukeratu izana, nire ibilbideari garrantzia ematen dioten seinale da-eta.

Zein izan da zure txapelketa kuttuna?

Atzerrian jokatzen ibili naiz Euskal Federazioari esker, eta *Munduko Txapelketa* deitu zitzaion bat jokatu genuen San Frantziskon. Irabazi egin genuen. Izenagatik, eta atzerriko pilotariekin joatu nuelako, hori aipatuko nuke, baina Gipuzkoakoa edo Euskadikoa lortu izan ditudanean ere balio bera ematen diet.

Hemendik aurrera, zer?

Beste afizio batzuk hartu beharko ditut. Goma berriz probatu nahiko nuke lasai-lasai, gorputzak nola erantzuten duen ikusteko, baina ezin bada ez gara alperrik galduko.

Pilota munduarekin kontaktuan jarraitzeko asmoa dut, nahiz eta ez jokatu. Nirekin jokatzen ibili direnak erretiratu arte behintzat han izango naiz. Pilotak asko eman baitit arlo pertsonalean, ezagututako jendeagatik; niretzako pilota ez da frontoira joatea bakarrik. Horregatik, kirol ibilbide hone-tan lagundu nauten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.

BODEGAS



01907 BANOS de EBRO
Tel/Fax 945 60 91 58
www.bodegagailur.com

Arabar Enrixa

ZUDUGARAI



Gelariako Txakolina

Tel. 943 83 03 86
Fax 943 83 59 52
bakolizudugarai@euskalnet.net
www.bakolizudugarai.com

Laster arte!

JATETXEA

Galerna

Antillako Hondartza 5
20810-Orio-Tel.:943 89 04 16

ITZIAR

kirolak

Tel. 943 83 31 03

ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak •beira bikoitza
- segurtasun beirak •dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak •barandak •kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

tel/fax: 943 89 00 69

Bizkaia kalea, 4. 20.800 ZARAUTZ



ITURGINTZA - BEROGINTZA - GASA

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

Presupuestak konpromisorik gabe

Joana Murgiondo

Aseguru-agentea

ASEGURUAK

C C L

CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

2GURPIL



Baxoalde 2 - 3 • 20810 Orio (Gipuzkoa)

T/ 943 835 980 W/ www.2gurpil.com E/ bigurpil@hotmail.com

azku

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86
carroceriasazkue@hotmail.com

943 831048
610 697 668



www.fotoramiro.com

ROSANA ARRUTI

- ARGAZKI ESTUDIOA -

2015

Jaunartzeak

Aurrekontua eskatu konpromisorik gabe!

Tel:943835845
fotorosanaarruti@gmail.com

Portu

ERRETEGIA

Santio Erreka Auzoa, 2/g
943 89 44 34
20809 AIA-ORIO

kazalrik, baserriko oilaskak
parrikako erreteak, egurreko menua...

Sin(etsi) ezin



Aitor Arregi

1. Izan hadi onena, azkarrena, indartsuena, lortu ezak gogoan duan hori, kosta ala kosta, ez begiratu atzera, zapaldu behar baduk, zapaldu, gezurra esan behar baduk, gezurra esan, hire nahiak lortzeko zilegi duk dena.

3. Gaur egungo gizartearen oinarri bihurtu duk lehiakortasuna, eta behar izan ezkerro, ondo ikusia zegoen bestea zapaltzea.

5. Zinean, telebistan, publizitatean, *exitoa* saltzen ditek, ametsak lortu nahi izatea, ondo zagok, baina, zeren, noren kontura? Mehatxua, gezurra eta harrokeria erabiltzen dizkiagu gure eguneroko bizitzan, lanean aurrera egiteko, politikagintzan, erlazio pertsonaletan...

7. Merkatuaren eta lehiakortasunaren gizarte hone-tan, posible al dek elkartasunaz eta denok batera joateaz hitz egitea? Ezezkoan nago, nekez, bakoitza geurea giazatik, norbere *exitore*n bila, aldamenekoaren onuraren kezkarik gabe.

9. Baina etorkizunean sinesten diat, etorkizuneko neska mutilekin, gaur egun haurrak diren horiekin konfiantza osoa diat, izan ere uste osoa diat, gaur egun haurrak diren horiek, gizarte eskuzabalago bat martxan jarriko dutela, inork inor zapaldu gabe, *exitoa* edonoren gaintetik jarri beharrean, *exitore* horretara nola iritsi izana, aintzakotzat hartuko dutela.

11. Aspaldi ikasi nian, lehendabizi etxean eta gero kirolean, irabaztea baino garrantzitsuago zela, nola irabazi izana, edo irabazten ez bazen ere, horrekin sinetsi eta saiatzeara.

13. Bide onetik goazela iruditzen zaidak, ez duk beranduegi oraindik, ze iruditzen zaik?



Eneko Balerdi

2. Ez nauk inozoa, ez ergela, ez tentela, ezta zozoa ere, baina litekeena duk inuzentea, xaloe eta maleziagabea izatea. Motela eta ez eraginkorra nauk parte hartzean sinestean eta ikusle, biztanle eta ikasle pasibogresiboak hitzen erabileran.

4. Sentikortasunez zapaldu eta atxikimendua gartzten ari nauk nire bizikideekiko, hezkidetza oinarrian, erantzunkide nauk eta aniztasunaren trataera egokiaz praktika inklusiboan aritua eta aditua nauk.

6. Izan ere, galtzea gaizki ikusia zagok. Hara! Ikusi al duk inoiz alderdi politikorik galdu dutela aitortzen, hauteskunde biamunetan? Ez bada! Negar egitea ona omen duk! Umeei geronek egiten ez dugun hori eskatzen zieagu: halako diskurtsoak ahotan, baina bestelako praktikak eguneroko esperientzian.

8. Baietz hik baino prezio hobea lortu! Baietz hire kontratuan ez duan klausula hori nirean sinatzea lortu. Baietz hik baino mega eta minutu gehiago izan! Baietz hik baino aseguru merkeagoa lortu! Baietz hik baino bidaia eta egonaldi erosoagoak alokatu! Ezetz? Ezetz besteagatik kezkatu!

10: Hor zagok gako! Aldaketa posible dela sinestean! Hire sinestean aldatzean. Sinetsita bizitzean errealitatea aldatuta ikusi dezakek eta gakoan zintzilikaturik, inor baino gorago izango haiz. Kakotik errealitate!

12. Garrantzitsuena parte hartzea duk, prozesua, bige egitea, jendea ezagutzea, esperientzia bizitzea, bige daia, norbere garapena, ezagutza eta jakintza gehitzea, elkarbanatzea, kontatzea, itaka!

14. Zorionak lagun! Irabazi duk! Irabazi diagu. Biok irabazle beraz? Hara, bi inuzente.

Aulki-betetzea



Miriam Garcia

Gaizki gaudenean, gaizki egoteko eskubidea eta betebeharra dugula ikasi dut. Eta oztopoak erronka bihurtzen ikasi dut.

Hiru urte baino gehiago pasa dira ezagutu nuenetik. Bi urte eta erdi, Oriora bisitan etorri zenetik –egun zoragarriak haiek, alajaña!–. Bi urte, urtarrilean, istripua izan zutenetik. Bi urte, nire bizitza hankaz gora zegoela uste nuenean, oraindik gehiago nahastu zenetik.

Distantzian bizi nituen momentu haiek. Hasieran, ongi jakin gabe zer gertatu zen; gero, berarekin ezin egotearen minnez.

Bakoitzak bere sendatze eta garapen prozesua pasagenuen, berak han eta nik hemen, baina elkarrekin. Esan beharra dago gogorra goa eta luzeagoa –izan– dela berea, ez dago konparaziorik, baina ez zion momentu bakar batean nireari pisurik kendu. Askotan galdetzen zidan nola nengoen –askotan galdetzen dit oraindik–, eta ni errudun sentitzen nintzen gaizki nengoela esaten nion bakoitzean.

Lezio asko eman dizkit bi urte hauetan. Etsipenak ezertarako ez duela balio ikasi dut. Momentu itsusien aurpegi ederrikusten ikasi dut. Gaizki gaudenean, gaizki egoteko eskubidea eta betebeharra dugula ikasi dut. Eta oztopoak erronka bihurtzen ikasi dut.

Toledon egon nintzenean ikasi nuen lezio handiena. Gorrak bezain ederrak, hiru egun haiek. Ahateak, gurpilak, ping-ponga, besarkadak, liburuak, algarak, malkoak, aldapak... mila bizipen eta mila emozio –ene! a ze malko jarioa zutik jarri zutenean!–. Istorio eredugarriak ezagutu nituen mundutik isolatutako eraikin hartan; zailtasunak zailtasun, umorea sekula galdu behar ez den zer bait dela irakatsi zidaten.

Bere bizitza ikasgai bihurtu dut nirean, pertsona bat eredu bezala hartu behar badut, bera izango delako beti. Berdin dio zein unetan, bizitzako zein momentutan. Mina eta ezina egon zitekeen lekuan –eta badago– beti irribarre bat dagoe-lako, beti izango dituelako hitz ederrak eta maitasuna emateko. Eta zer egin dezakegu besteok, emandako hori guztia –bider hamar– itzuli baino?

Ezagutzen nauzuenek badakizue nori buruz ari naizen. Grabaketa batean lanean ari zela, istripu bat izan zuen Virginiak. Bizkarrezur-muineko lesio batekin bizi da geroztik. Bere blogean sartzeko gonbita luzatzen dizuet: *Viviendo Rodando* du izena. Eta bere historia niri bezala bihotzeraino heltzen bazaizue, bejondeizuela! Hori zen nire helburua.

edarteia
ANTILLA
jaleteia

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiasserrajeros@yahoo.es
20810 ORIO

- ATEAK IREKITZEN DITUGU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALGUKIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA



Ander Atorrasagasti

(Des)berdinak

Jakina da, hauteskunde urtean murgildu garen honetan, promesa mordoa entzun beharko ditugula, ilusio berriak denon partetik; baina, zer aldatu zaigu lau urte hauetan?

011ko apirila. Sozialistak arrosak banatzen azoka egunean, jeltzaleak gozoki berde eta gorriak oparitzen kaleetan, popularrak txaleten neurriak aldatu nahian, Oraineko flyerrak etxean bueltaka eta Bildukoak isunei buruz hitz egiten plazan, betiko leloa.


Lau urte pasa eta gero laster hasiko gara berriz propaganda berdina jasotzen, megafonodun kotxeak egunero ikusten, postaria kolore guztietako gutunak banatzen... Spotifyn ere Miguel Buen sartu ziguten abestien artean, ea aurten nork egiten duen publizitate "desberdina"! Azken finean aurreko lana ondo egin beharra dago, diskurtsoa ondo ikasi behar da, begietara sartzen den material sexya sortu... Lau urteko soldata lortzeko zenbat gauza egin behar!

Aurten zerbait berririk izango ote dugu postontzian? Askok birziklatzen dugula udaletxeko balkoian jartzen digute, baina zenbat paper xahutuko ote dugu botoen lehia horretan aurrea hartzeko? Gogoratu zaborrik onena sortzen ez dena dela, beraz, nire etxerako propagandak aurrezteko moduan zarete!

Jakina da hauteskunde urtean murgildu garen honetan promesa mordoa entzun beharko ditugula, ilusio berriak denon partetik, baina zer aldatu zaigu lau urte hauetan? Horrenbeste gorroto genuen Eroski handia irekita, udaltzainen isun festak ez du amaierarik...

Eskerrak Bisiguaren Festa elitista zen eta orain daudenek aldatu egin behar ziguten! Hala ere, herriko ostalaritzaren alde lan egin dela ezin da ukatu, uztailaren 20an herria bete genuen, estropadak eta bisiguaren egunarekin, udako bi ekitaldi garrantzitsuenak egun berean jarrita. Zertarako eduki bi asteburutan herria beteta egun bakarrean eduki badezakegu?

Konturatzera testua bete zait, baina ez dut nahi hau bere horretan geratzerik eta badut proposamen bat hartu nahi duenarentzat. Esan didatenez Anibarko Portuan apartatzea geroz eta zailagoa omen da, eta aldi berean hango ondarea zaintzeko semaforo bat jarriko nuke auzokoak soilik sartzeko. Azken finean Goiko Kalekoak funtzionatu digu, isunak bakarrik jartzen ditu eta jendea oso gustura dagoenez...



Zarautz

Hileta Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa

> Hileta zerbitzu orokorrak

> Zerbitzu iraunkorra



Harrespil

Hilerri Zerbitzuak



Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxe: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



Nazioarteko estropada, badator berriro

1968ko Nazioarteko Estropada bizi izan zutenek festa jendetsua dute gogoan. **47 urtean 15 aldiz antolatu dute**, azkena 2009an. Arraun elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten, aitzakia ezinhobea berriz antolatzeko.

TESTUA: OLATZ ARTOLA
ARGAZKIAK: SINADURA



“Hainbat herrialdetatik etorri ziren arraun taldeak eta estatatu guztitik zaleak”

“2014ko urtarrilean hasi ziren Estropada Internazionalaren antolakuntzarekin”

1968 urtea. Kaleak jendez lepo. Balkoian puxikak, etxetik etxera girnaldak. Parrilak sutan, bixiguak sutan. Txakolina basoan hausten. Bandera horiak astinduz. Moila arraunzalez beteta eta erriogan Alemaniako, Belgikako, Kataluniako, Ingalaterrako eta Euskal Herriko arraunlariak. 1968ko irailaren 25ean antolatu ziren Nazioarteko Estropadak lehen aldiz.

Orioko Arraun Elkartea sortu berria zen, hiru urte lehenengo. 1965ean jaiotako elkarteak aulki mugikorraren aldeko apustua egin zuen, tradizioa galdu gabe, olinpismorantz joateko. Munduari euskaldunek arraunean zuten abilezia erakutsi nahi zioten, eta, horretarako, zer hobea Estropada Internazionalak baino?

Anbizio handiko erronka

Tostako arraunketan maisu ziren oriotarrak, eta, oro har, euskaldunak. Aulki mugikorrean, ordea, ez ziren sekula ibili, Patxi Sarasua salbu, Ur Kirolaken. Ontziak erosteko dirurik ez, eta Frantziatik ekartzen zituzten kontrabandoan. Arraunean Peter Karres alemaniarrek irakatsi zien, hilabetez Orion egin zuen egonaldian. Fisikoa, berriz, Albert Mainela atleta frantziarrearekin landu zuten. Kirol medikuntzan aitzindariak izan ziren Euskal Herrian. Behin teknika eta fisikoa landuta, aulki mugikorrean aritzeko prest zeuden oriotarrak.

1966an txapelketetan parte hartzen hasi ziren, eta 1967an lehen emaitzak jaso zituzten. Hasiberriak ziren garaian, erronka berri bat heldu zioten: aulki mugikorreko nazioarteko estropadak antolatu zituzten 1968an.


Erronka berrien aurrean beldurtu ordez, hazi egin ziren oriotarrak. Kirola ardatz zuen festa mundiala antolatu zuten. Hainbat herrialdetatik etorri ziren arraun taldeak eta estatatu guztitik zaleak. Espainiako telebista publikoan emititu zituzten estropadak eta estatuko prentsan albiste izan zen. Arrakastatsua izan zen lehen edizioa, hortaz, urteroko zita bilakatu zen.

1969tik 2009ra, 15 edizio

Hurrengo urtean berriz antolatu zituzten estropadak, eta are arrakastatsuagoak izan ziren. Orio ezagun egin zen, baita Orioko ondare kultural eta gastronomikoa ere. Orioko arraunlariak jarraitzaile asko lortu zituzten; eta arraunak, zale asko.

Ondorengo urteetan, 1976ra arte, urtero-urtero antolatu zen Nazioarteko Estropada, 1972an izan ezik. 1989 urtean berreskuratu zen, baina ez zuen jarraipenik izan 2001. urtera arte. 2004, 2005, 2006, 2007 eta 2008an ere zen estropada, baina ordutik da berriro antolatu.

Baina, aurrean, Orio Arraun Elkartearen 50. urteurrenean, berriz bizia hartuko du Aulki Mugikorreko Nazioarteko Estropadak.



Mende erdia bete du Orio Arraunketa Elkartek

Orio arraunarekin lotzen duen lehen erreferentzia 1897ko Kontxako Estropada bada ere, arraun elkartea dezente beranduago sortu zen, 1965an, hain zuzen. Hortaz, 50 urte beteko ditu aurten elkartek. Egungo taldekideak eta taldekide ohiak bildu, eta batzordea eratu dute urteurreneko ekintzak antolatzeko: Oriaren Jaitsiera, Garagardo Azoka, San Miguel ligako eta KAE ligako estropadak...

Baina, bada mimo bereziz antolatzen dabilta ekimen bat: Nazioarteko Estropadak. Sei urteren ostean, berriz egingo baita. Hamaseigarren aldia izango da estropada horiek antolatzen direla.

Apirilaren 4an, Aste Santuetan

2014ko urtarrilean hasi ziren Estropada Internazionalaren antolakuntzarekin. Lehen zirriborroa orduan egin zuten. Antolakuntzan beharko zuten diru-kopurua zenbatekoa zen zehaztu zuten. Arraun Elkartearen asmoa diruaren %25a Gipuzkoako Foru Aldundiak ematea zen, beste %25a Eusko Jaurlaritzak, beste laurdena Udalak eta gelditzen zena klubak jartzea.

Babes ekonomikoa jasoko zutenaren albisteak izan zuten ekainean. Udalak baiezkua eman zuen, hasiera-hasieratik. Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak lagunduko zutela hitzartu zuten. Finantziario iturriak izango zituztela jakitean, urrian, buru-belarri hasi ziren lanean. Txapelketen egutegiak begiratu ostean, data ipini zuten: apirilaren 4a.

ETBrekin lehen harremanak ere urrian egin zituzten. Bilboko egoitzan bildu ziren Mikel Olazabal kirol saileko arduradunarekin, eta estropadak zuzenean emitituko zituztela adostu zuten.

ZENBAKIA

12

Talde. Cambridge, Molesey, Sevillako bi talde, Baionakoa, Hondarribia, Orio eta beste hainbat talde internazional gehiago etorriko dira Estropada Internazionalaren hamaseigarren ediziora.



Lehentasuna: Londres

Babes ekonomikoa ziurtatuta izandakoan, Ingalaterrara bidaiatu zuten Ibon Huegun Arraun Elkarteko presidentek, Jon Carazo arraunlariak, Zigor Gazpio direktibako kideak, Jon Agirresarobe zinegotziak eta Beñat Solaberrieta alkatetik.

40 orduko bidaia izan zen; egun batean joan eta hurrengoan bueltatu. Azaroaren 22an hartu zuten hegazkina, gaueko bederatziak aldera. Londresen pasa zuten gaua. Goizean goiz jaiki ziren. 9:00etan zuten lehen hitzordua, Cambridge arraun elkartearen egoitza nagusian.

Entrenatzaileen koordinatzailearen bulegoan egin zuten bilera. Cambridgeko arduradunek ez zuten duda egin, baietz esan zuten, etorriko direla. Gainera, zinez gustatu zitzaizkien Orioko Arraun Elkartearen instalakuntzak, hortaz, bidaia aurreratu dute instalazioak erabili ahal izateko. Martxoaren 29an etorriko dira Oriora. Trainerua probatzeko gogoa ere azaldu zuten.

Eguerdian bilera amaitu eta kotxean Moleseyra joan ziren, bileratik bilerara. Londresko talderik indartsuena da, azken olinpiadetan lau domina eskuratu zituen. Entrenatzailearekin eta presidentarekin bildu ziren, eta horiek ere estropadan parte hartzeko gogoa azaldu zuten. Bilera amaitu eta Ingalaterrako bi taldeak Orion izango direla ziurtasunez zekitelarik hartu zuten itzulerarako hegazkina.

Bi orduko ikuskizuna

Gizonezkoen estropadan 12 talde egongo dira: euskaldunak, estatukoak eta internazionalak. Emakumezkoak ere lehiatuko dira. Txapelketa formatuan jokatu da, bost minuturo 1000 metroko estropada egingo da.

HISTORIARI BEGIRADA KRONOLOGIKOKI

Garaipen zerrenda

Hainbat modalitatetan egin arren arraun, proba nagusia zortzikoa izan da. Kategoria horretakoak dira emaitza hauek:

1968 Orio irabazle 5:33:60 denborarekin

1969 Cambridge garaile 6:04:60 emaitzarekin

1970 Orio irabazle 5:59:60 denborarekin

1971 Munich-Franckfurt garaile 5:48:00 denborarekin

1973 Columbus Day-Florida irabazle, 4:54:50

1974 Cambridge irabazle 5:28:50eko denbora eginda

1976 Oxford garaile 4:59:90 denborarekin

1989 Oriok irabazi zuen 4:56:76 emaitzarekin

2001 Orio garaile 4:27:88ko denbora eginda

2004 Orio A.E. irabazle 2:51:19 denborarekin

2005 urtetik aurrera emakumeek ere hartzen dute parte Estropada Internazionallean, binako laukoan aritzen dira. Emaitzak:

2005 Hondarribia txapelkun gizonetzkoetan, 3:00:34

Andaluzia garaile nesketan 8 punturekin

2006 SC Caminhense garaile mutiletan, 2:56:25

En Bordeaux nagusi nesketan, 8 punturekin

2007 Hondarribia txapelkun gizonetzkoetan, 2:55:18

Nesketan ere Hondarribiak irabazi zuen, 3:36:36

2008 SC Caminhense irabazle gizonetzkoetan, 2:33:78

CR Labradores txapelkun nesketan, 03:03:52

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaia S.L.



Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

ITSASADARRA, S. L.
 Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
 finka administratzailea
 gestoria
 enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
 Ibai Ondo 4, behe. 20810 Orio

LEUNDA OKINGEDIA



ORDUTEGIA

ASTELEHENETIK - LARUNBATERA 7:00 - 20:30
 IGANDE ETA JAIEGUNEKIN 7:00 - 13:30



AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO



INDO

Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4
 Tel. 943 894 024
 Fax. 943 130 144
 20809 AIA - ORIO



Lizaso dekorazioa



Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

Tfnoa: 943 83 59 00

URAITZ
lurrindegia
jantzi-sagarriak

Endata,3 Tfnoa: 943 83 18 97



mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943. 572083
 FAX - 943. 571190
 i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
 IBAI ONDO 13
 20810 ORIO

XABIER URRETABIZKAIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

943 83 17 74
 Arrantza, 31 20810 ORIO

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5, Orio
 943 83 00 34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

libe
 dietetika
 elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
 [sarrera Arrantzale kaletik]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
 libegarmendia@gmail.com

Jon Azkue mundialean izango da

Brasilen jokatu den mundialean izango da oriotarra, asteburuan Portugal 22-28 irabazita. Norgehiagokaren lehen minututik oriotarra izan zen selekzioko gidari. Ikur eta izar. Partidako jokalar onena izendatu zuten Azkue, MVP. Beretzat pozgarria izan zen arren, garrantzitsuena taldea sailkatzea zela aitortu du. Dena den, horrelako saria jasotzea beti seinale ona dela gaineratu du.

Junior kategorian jokatu dezakeen azken mundiala da aurtengoa. Udar izango da, Brasilen, eta txapelaldun izateko borrokatzeko prest dago oriotarra; irabazteko asmoarekin joango da.

ARGAZKIA: ALBERTO AZKARATE

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk eka-
rritakoa dela jarrita.

Zergatik da .eus beste edozein domeinu baino hobea zuretzat?

Ikuspuntu asko biltzen dituen puntua: zurea, auzokidearena, lagunarena, lagunaren lagunarena. Zure ideia, produktu, zaletasun eta gustuentzat erreferentzia puntua.

Nor garen eta nondik gatozen jakiteko abiapuntua. Guk bezala hitz egiten dutenekin kontaktu puntua.

Interneten bereizten gaituen puntua.

Gure enpresa, langile, ikasle eta irakasleentzat euskarri den puntua.

Gure komunitatearentzat, kulturarentzat eta zuretzat puntu eta jarraia izango dena.

Anima zaitetz eta sortu zure .eus domeinu-izena. Informazio gehiago www.domeinuak.eus webgunean

Hemen duzu zure puntu berria



gure domeinua



Itsasoa lehorretik begiratuta . KARKARA

Denboraleak, itsasoa olatu haserreak

Iaz denboraleak gogor jo zuen Euskal Herriko kostak. Haizea asko harrotu zen eta itsasoa gaiztotu. Naturaren indarrak hankaz gora jarri zituen kostaldean eraikitakoak. Aurten, lau-bost metro inguruko olatuak izan ditugu urte hasiera honetan.



Itsasoa harro . JMAZKUE



Dunak. KARKARA



Orioko hondartza, nahiko bare . KARKARA



Udan soroslea egoten den txokoa neguan hutsik. KARKARA

Denboraleak itsasoan olatu aleak

Uda denboraldian joan ohi gara maiztasunez hondartzara, eguraldiak laguntzen duenean.. Talaimendi eskubian, Muskulluarri ezkerrean, barra eta itsaso zabala parean... Neguan ere gozatu ederra hartu daiteke begira egote hutsarekin, estanpa paregabea baita:

“Aldaketa handiagoa izan zen Aiatik Irunera joatea, gero Madrilera joatea baino”

Itziar Agirresarobe

Madriken bizi den aiarra

Hamahiru urterekin, gurasoek Aian etorkizunik ez zegoela iri-tzita, herria utzi zuten Itziar Agirresarobek eta bere familiak. Hainbat tokitan bizi izan da geroztik, eta Madril du orain bizitoki.

MIKEL ETXEBERRIA ETA RIKARDO UZKUDUN

Hautzaroa Aian pasatu eta nerabea zela herritik eraman zuten gurasoek Itziar Agirresarobe –Aia, 1940–. Irunen, Miarritzen, Beasainen, Madriken eta Bartzelonan pasatu zituen bere bizitzako boladak. Espainiako hiriburuan bizitzen eman ditu azken 44 urteak.

Zenbat urterekin joan zineten Aiatik? Zer dela eta?

Aiatik 1953an aterakin, nik hamahiru urte nituela. Familia handia zen gurea, zazpi anai-arreba ginen, eta gure gurasoek uste zuten bertan ez zegoela etorkizunik denentzako. Etxea, dolarea, ganadua eta guztia saldu eta Irunera abiatu ginen etorkizun hobe baten bila.

Zer duzu gogoan orduko Aiatik?

Oroitzapen bereziak ditut, ziurrenik hautzaroa delako garairik inportanteena. Oso bizitza polita zen umeentzako. Eskolako kontuak eta Eliza ingurukoak -orduan dena mugitzen zen Elizaren inguruan- betetzen zituzten gure orduak. Gainontzekoak jolasa zen, herrian gora eta behera.

Dotrina egunero ematen ziguten, eta bi errosario erreza-

tzen genituen, bata elizan eta bestea etxean. Igande goizetan mezataria, eta arratsaldeetan bezperak kantatzera joaten ginen, eta gero mojen etxeko saloian kartetan aritzen ginen. Gogoan dut ere igandetan akordeoia izaten zela plazan.

Eskolan erdaraz ikasten genuen, garaia hala aginduta, baina himnoa kantatu eta gero, korrikan ateratzen ginen plazara eta, jakina, euskaraz zen gure eguneroko bizitza. Aiako eskolan sartu zen lehenengo boligrafoa nik ekarria izan zen, 1951n edo. Bi ahizpa zaharrenak Frantziara joanak ziren lan egitera, eta handik pare bat boligrafo ekarri zituzten.

Himnoa aipatu duzu. Zein himno?

Ez dakit zein himno zen, falangearena-edo, horrela bukatzen zen: *por ella alegre he de morir*. Ume guztiek kantatzen genuen piperrik ere ulertu gabe, pozik, plazara ateratzeko ordua seinalatzen zuelako.

Irunen nola sentitzen zineten? Aldaketa handia izan al zen Aiatik Irunera?

Lehenengo urtean kolpe handia izan zen; aldaketa ikaragarria zentzu guztietan. Gaizki pasa nuen, erdaraz ez nuelako



1947an Lehen Jaunartzea Aian. Eliza atarian. Goian, eskuinetik hasita bigarrena da Itziar. I. AGIRRESAROBÉ

euskaraz bezain ondo egiten. Askotan tartekatzen nuen euskara eta, jakina, batzuk barre egiten zuten. Irun herri guztiz erdalduna zen, ez zen batere hitz egiten euskaraz.

Denda batean hasi nintzen lanean hemeretzi urterekin, eta aurrerago, Miarritzera joan nintzen frantsesez jakin gabe, eta umezain hasi nintzen lanean. Urte politak pasa nituen Miarritzen: astean zehar lanean eta asteburuetan Irunen. Garai hartan Irunen ez zegoen oso ondo ikusita beste aldera pasatzea lanera, oso jende gutxi joaten zen iparraldera lan bila. Hori egitea kategoria galtzea bezala zen.

Etagero?

Ezkundu eta Beasainera joan nintzen bizitzera, senarraren lana zela-eta. Han astegunak pasatzen genituen eta Irunen asteburuak. Hurrengo pausua Madrilera joatea izan zen, lanagatik, hiru seme-alaba genituela.

Nolakoa zen Madril garai hartan?

1971ko Madril ez zen gaur egungoa, baina hiri handi bat zen, hiriburu bat. Umeak, egia esan, eskolara izututa sartu ziren, ez baitzeuden ohituta ikastetxe handietara. Hala ere, gure bizitza nahiko mugatua zen: lan eta lan pasatzen genituen egunak, eta oporrak noiz iritsi zain bizi ginen Irunera joateko.

Hala ere, niretzat aldaketa askoz handiagoa izan zen nera-bezaroan Aiatik Irunera joatea, gero Madrilera bizitzera joatea baino.

Helduaroan beste aldaketa bat tokatu zitzaidan, hau ere senarraren lan kontuengatik, eta 1998an Bartzelonara joan

“Irunera joatea kolpe handia izan zen. Gaizki pasa nuen hasieran, gazteleraz ez nuelako euskaraz bezain ondo egiten”



1962 inguruan. I. AGIRRESAROBÉ

“Umeentzat herri txikia nahiago dut, baina urteak aurrera joan ahala hiriaren abantailak ere ikusi ditut”



Gaur egun. I. AGIRRESAROBÉ

ginen biok, azken bost lan-urteak egitera. Bartzelonan, hiria asko gustatzeaz gain, harrigarria egin zitzaidan katalanaren presentzia eta naturaltasuna.

Zuen seme-alabak Madrilen hazi ziren. Euskaraz ikasi al zuten?

Alaba zaharrenak zazpi urte zituen Madrilera joan ginenean, eta euskara polita zuen. Kezkatuta geunden ea ondo moldatuko ote zen eskola berrian. Bigarrenak euskaraz zertxobait bazekien eta txikiena txikiegia zen hitz egiteko. Laugarrena bertan jaio zen.

Madrilen pasatako urteetan euskara pixka bat galdu genuen, eta etxean berriro sartu zen semeetako bat Euskal Etxean euskara ikasten hasi zenean. Orain berarekin eta bi-lobekin euskaraz egiten dut.

Biak ezagututa, zer nahiago duzu hirian ala herrian bizi?

Ba ez nuke jakingo aukeratzenean, bizitzako garaiazen arabera bata edo bestea nahiago nuke.

Umeentzat herri txikiagoa nahiago dut, dudarik gabe, baina urteak aurrera egin ahala hirien abantailak ere ikusten ditut. Hala ere, herri txikikoa izandakoak bertako mentalitatea du, eta hura bizitzan zehar azaleratu egiten da. Azala pix-

ka bat urratu eta agertzen da, hor dago. Nahiz eta bizitzak beste bidetik eraman, herri txikitako ohiturak eta sentierak gainean daramatzagu.

Etortzen al zara Aiara?

Noizean behin joaten naiz. Lehengusinak bisitatzea eta herri-ritik paseatzera. Oso gustura ibiltzen naiz kalez kale gauzak gogoratzen. Kanposantura ere bisita egiten dut, han dauzkat-eta aita eta ama.

Nola ikusten duzu Aia gaur egun?

Benetan polita. Orduan etxe zaharrak eta pobreak ziren, baina gaur egun hiri handi batean egoten diren abantaila guztiekin bizi da jendea. Gazteak bereziki askatasun asko gehiagorekin bizi dira: mugitzeko, ikasteko... inongo mugarik gabe. Gure garaian ez zen horrela, eta hori da gehien estimatzen dudana.

Ikusgarria da nola aurreratu den komunikazioetan. Gogoa dut gure aitak oinez egun osoko txangoa egin behar zuela Igeldora joateko, estropadak prismatikoekin ikuste arren. Orduan egun osoa behar zen gaur egun ziztu bizian egiten duguna egiteko. Gure belaunaldikoei, bizitza baten tarte laburrean, aldaketa ikaragarrien lekuko izatea tokatu zaigu.

OSPAKIZUNA



365 egun, 730 buelta

Agindutakoabete du Joakinek, egunero bi aldiz igo da Kukuarrira. 2014 urterako promesa egin zuen, 730 buelta egingo zituela. Esana bete du, 2014ko abenduaren 31n falta zitzaizkion bi bueltak egin baitzituen; azkena, senitartekoen konpainian.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Orion bazkari bat genuen eta orduantxe jardun zuten kontu horrekin, eta ez dago, nonbait, Euskal Herrian nire edadeko bertsolaririk: ez kantatzen duenik, eta ez kantatzen duenik.”

Patxi Etxeberria, bertsolaria, Bertsolari aldizkaria, 2014 udazkena.

“Alderdian diotena egingo dut; baina, printzipioz, asmoa, politikan jarraitzea da, hasi ditugun proiektuak amaitzeko. Hil honen amaierarako zalantzak argituko ditugu.”

Juan Luis Illarramendi, Zarauzko alkatea, Diario Vasco, 2015eko urtarrilaren 11n.



Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel.: 943 13 00 77
Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileihokak.com
Arrantzale Kalea, 65
20810 **ORIO** (Gipuzkoa)

OREKA
FISIOTERAPIA

Tendinitisak
Lumbalgiak
Artrosia
Zefaleak ...

Masaje terapeutikoa,
bentosak, akupuntura,
eskuzko terapia,
osteopatia

943 13 35 37
Aritzaga kalea, 11 behe

Urtarrileko sarituak

Maria Jesus Alunda Acuña

Kaioa arropa denda

Maria Josefa Oliden Genoba

Lua arropa denda

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko



K karkara.eus

Eskaintza
berria
Eskaria



Eduki berriak,
garai berrietan;
paperetik webgunera

TESTUA: OLATZ ARTOLA

ARGAZKIAK: KARKARA

Internetaren olatuan arraunean aritzeko erronkari heldu genion mende laurdena bete genuenean, zerbait berria sortzeko asmoarekin. Aurrera doan arraunlarien moduan egiten ahalegindu gara, iragana begira, haren gakoak berrasmatzeko helburuarekin. Atari berriarekin berrituta etorri zen, iazko maiatzean, KARKARA.com. Berehalakotasuna irabazi, multimediaaltasuna sustatu eta komunitatean elikatu genuen orainkariarekin.

Abenduaren 3an .com izatetik .eus izatera pasa ginen. Euskara eta euskal kulturaren domeinuaren alde egin genuen, Interneteko lehen lerroan egotea garrantzitsua ikusten baikenuen.

Urte berriarekin, erronka berriak

2015 urtearekin batera, KARKARA.eus eduki berriei hornitu dugu. *Atalak* izeneko leihoa gehitu diogu menuari, paperean irakurritakoa elkarbanatzeko, ale bereziak sarean izateko eta euskal kulturaren kontsumoa bultzatzeko.

Izan ere, elkarriketak, erreportajeak, kritikak, gutunak iritziak, ale gehigarriak, bertsoak eta gomendioak izango dira *Atalak* leihoa elikatuko dutenak.

Paperekoa sarean

Teknologia etengabe garatuz doa, eta, honekin batera, gizartea aldatuz. Komunikazio tresna berriak ditugu, eta horrek komunikatzeko moduak aldatu ditu. Mugikorra, smart telebista, ordenagailua, tableta... pantailez inguratuta gaudenez, pantailen bidez komunikatzen gara, batik bat.

Hori dela eta, kazetaritza sarean hauspotu nahi dugu. Hortaz, KARKARAKO zenbakietako edukia webguneko *Atalak* orrira esportatuko dugu. Postontzian jasotako alean irakurritakoa orainkarira ekarri dugu, sare sozialetan elkarbanatu eta zabaltzeko ahal izateko.

Ale bereziak eta gehigarriak

Festa programak, Kilometroetako ale berezia, arraun denboraldiaren laburpena... horiek guztiak ere bildu ditugu *gehigarriak* azpi-sailean.

Astero-astero, gomendioak

Asteburuaren atarian, ostiraletan, kulturarekin eta gastronomiarekin lotutako gomendioak egingo ditugu. Euskaraz, euskaldunak; euskal musika, literatura eta zinema indartzeko xedearekin.

Hilabeteko lehen ostiraletan musikarekin lotutako proposamena egingo dizuegu; hurrengo astean, liburu bat gomendatuko dizuegu; ondorengoan, sukaldari lanetan jarriko zaituztegu errezeta batekin; eta, laugarrenean, ikusi beharreko film baten gomendia egingo dizuegu.

Honekin guztiarekin, euskaraz irakurtzetik, euskaraz txiokatze edo euskaraz kontsumitzeko aukera eskura izan dezazun nahi dugu.



“Paperekoa webgunera ekarri dugu, sare sozialetan elkarbanatu ahal izateko”

“Ostiralero kulturarekin edo gastronomiarekin lotutako gomendioak jarriko ditugu”

Amor/Orio

Denboralditxo bat kanpoan eman ostean edo, zergatik ez, Bilbon pasatako egun bakar batekin ere, itzul zaitezke gure hondartza maitera eta eskaini ohi dizkigun bakardade momentu ederrez gozatu

Sentsazio bati bueltaka ariko naiz artikulu hone-tan, agian zuetako askok ere sentituko zenuten noizbait antzeko *feeling*-a. Diot, Bilbora unibersitate garaian joan eta *Oriora txikitan joaten nintzen gurasoekin bisigua jatera* edo antzerako kontuak entzuten dituzunean, pena edo tristura sortzen dizula zure herriaz jendeak irudi hori –bakarrik– izateak. Hori eta noski, arraunarena. Gero, edozein egunetan herrian bueltaka zabilatzala poza ere sentitzen duzu Mikel edo *xixarione*kua arraiak erretzen ikustean, pentsatuz, hemendik urte gutxira parriletatik irtengo dela gurea herri arrantzalea izan zela gogoraraziko digun usain bakarra.

Diot, goragalea emango dizula hondartzara joan eta errio bestaldean ziztatu ziguten eraikin hori ikusteak, *putomuroa* enbarazuan eta orain, autopista azpian azukre-koxkor erraldoiak errioko kafesnetan urtu zain. Hala ere, denboralditxo bat kanpoan eman ostean edo zergatik ez, Bilbon pasatako egun bakar batekin ere, itzul zaitezke gure hondartza maitera eta eskaini ohi dizkigun bakardade momentu ederrez gozatu; Anarri aldera arraun edo igerian joanda, barrako arro-



Iñigo Gaiton

ketan eseri eta begiak itxiz edo Itxaspetik behera zatozela, bizi garen lekuagatik auskalo zeri eskerrak emanez.

Zoritxarrez, benetan maite-estimuan ditudan herritar gehiegi daude Oriotik hanka egiteko desiraz. Zergatik? Gure herria ez al da bakristona? Bai, primerakoa da... umeak hazteko. Zarauzko gazte askok guraso izan eta gurera jo du etxeak merkeagoak direlako, hori hala da. Eta gu, zerbait baginelakoan; aberastasunik geratzen al zaigu ba? Interes bereziko ezer mantendu al dugu?

Lehengo astean neguko eguzkia lagun Ur-lan tailerra, ontziola eta Frantsez-fabrika inguruetan kuxkuxean jardun nintzen. Lehenengoa husten ari dira, bigarrena erortzeaz dago eta hirugarrenaz ezer ez dakidanez, ixilik hobe.

400 metro horietan dauden harribitxiak uholdeak daramatza ahanzturara, betiko. Gaitz ederra dugu, beti berandu ibili beharrarekin...

Eta hemendik 20 bat urtera, errioaren alde horri begira orduak pasatzen ikusten dut nire burua, orain hondartzari bezala, garai batean izan zuten dirdirak txoratuta, oraindik maite ditudala sinistuz.

PERTSIANAK
AKO MAZ
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

HAIZE BERRI
taberna-jate txea-kafetegia
Plater konbinatuak,
bokatak,
hanburgesak,
razioak,
eguneko menua...
eta etxera eramateko zerbitzua!
Orioako kireldogan, Erribera 1 ☎ 943 83 16 23 Astearte goizetan itzala

ASADOR XIXARIO
Eusko Gudarien Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

Berdintasunak EZberdintzen

Ziurrenik egoera zailenean dagoenari baino lehenago lagunduko diogu gure antzekoenari. Sarri, ematen du ahaztu egiten dugula denok gizakiak garela.



Aizpea Esnaola

Telebista pizte hutsak sortzen didan sentsazioa deskribatzen duen hitza-
ren bila aritu ostean nazka da etortzen zaidan hitza. Pariseko Charlie Hebdo aldizkariko tiroketen berria entzun nuenean harrituta gelditu nintzen: bai, europarra naiz, azal zurikoa, komunikazio ikasketak ditut... tiroketaren unean erredakzio frantsesean zegoen jende horrekin, nolabait, identifikatuta sentitu nintzen. Albiste behin eta berriz entzun ostean, jada gaia nekatzen hasia zitzaidanean, nire baitan, istorioari buelta ematen hasi nintzen: *eta mendebaldeko gizaki zuriak gutaz trufatzen den aldizkari islamista bat erasotuko balute?* Galdera horren atzetik beste mila galdera etorri zitzaizkidan. *Komunikabideek gaiaz hitz egingo al lukete? Gaiaz hitz eginez gero nola tratatuko lukete? Adierazpen askatasunaren kontzeptua nola erabiliko lukete?* Galdera erretorikoak, denak.

Buruari buelta batzuk eman ostean, komunikabideen limurtze indar ukaezinaz gain, identifikatzen garenamekin enpatizatzeo dugun joeraz hausnartzen hasi nintzen. Gure

arrazaz, kultura, adin, hizkuntza eta sexu berekoa den pertsona batekin errazago identifikatzen gara, ezaguturik ezberdinak dituen pertsona batekin baino. Antzeko ezaugarriak dituen pertsona horren lekuan gure burua ikustea errazagoa egiten zaigu, noski.

Kale-bazterrean eskean ikusten dugun errumaniar bati edo espainiar bati ez diogu berdina laguntzen. Ziurrenik egoera zailenean dagoenari baino baino lehenago lagunduko diogu gure antzekoenari. Sarri, ematen du ahaztu egiten dugula denok gizakiak garela, denok berdina sentitzen dugula; gure artean ditugun diferentziak azpimarratzea edo handitzea gustatzen zaigu. Eta komunikabideak arduratzen dira diferentzia horiek amildegi bihurtzeaz.

Gero eta gizarte kultur-anitzagoan bizi gara, baina dudana jartzen dut gure bizimoduak gero eta kultur-anitzagoak diren. Eskoletatik eta etxeetatik hasi beharko genuke, umeei erakutsiz haragi kolorea ez dela *plastidecoretan* etortzen den arrosa eta laranja arteko kolore hori, baizik eta haragi koloreak anitzak direla. Eta hezteko, jateko eta jokatzeko moduak milaka direla eta gurea/nirea ez dela onena, beste bat baino ez.



Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAK



943 83 05 37 / 943 83 27 47



gizarte
kutxa

auto .zkue



Tf: 943 130 438

auto .zkue

XS

obrak
proiektuak
errehabilitazioak
txostenak
eraikuntza zerbitzuak
ITEak
eraikinen mantenua

arkitektura

borja agirresarobe lopetegi
herriko-barra 6, behea
20800 zarautz

6 3 5 7 3 1 7 2 2
9 4 3 1 3 4 3 5 8
xs@xsarkitektura.com

Nahikari

HAUR DENDA

Arrantzale Kalea, 35
28100 - Orio
Telf. 943 83 36 30
www.nahikari.es

SU KIA
TABERNA - JATETXEA

On egin eta gero... hartu KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGUNEKO MENUA
- EGUNKARIAK
- OGIA

TF.: 943 892 129
ABAROMENDI 38, 1. BAXUA

GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Ettxeko produktuak: tripaki, odolki,
txekorria, txorizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10


Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)



KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47

PIZZERIA
KALETA



ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

sinergia FISIOTERAPIA
IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAITIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK HAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, HAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOA (GAH)



Katalanak katalanez, euskaldunak ingelesez, inor baino *gua*iago.

Arraunetxe eta Oihaneder

Oroimenaren kutxa

Anjel Lertxundiren hitzak dira ondoko hauek –Berria, 15-01-07–: *Loreak filmaren euskal izenari eutsi diote beste hizkuntzetan ere. Osasuna da gorritxoan futbol taldea; Zinemaldia, Donostiako raileko zine-jaialdia. Lehendakari esaten diote beste hizkuntzetan ere Jaurlaritzako presidenteari. Itzulia da ziklisten gure lasterketa. Euskaratik mundura hartutako erabakiak dira, jatorrizko hizkuntzaren barne logikaz zabalduak.*

Sukaldea galtzen denean, ordea, Basque Culinary Center jaiotzen da; orain! oihuaren oihartzuna itzaltzen du Now! modernoak, txiste triste bat da futboleko euskal selekzioaren errebindikazioa –one country, one team– etxean jokatzen dela ahaztea...

Anjelen hitzek garbi erakusten dute batzuentzat garrantzizkoa dela gauzak nola izendatzen diren. Gehienontzat norberaren izenak garrantzi handia du, eta erakunde, elkarte eta ekimenei ematen zaizkienak ere bai. Izen ematea zer hizkuntzatan egiten den, gorabehera bitxiak gertatu izan dira, Anjelek aipatutakoen tankerakoak.

Historiako une traumatikoetan –gerrak, iraultzak...–, aldaketa handiak izaten dira gizartean, baita izenetan ere. 1936ko gerra irabazi zutenek irabazi izanak aldaketa ugari ekarri zuen izenen gai honetan Orion bertan: kaleek aurreko izenak galdu eta *Francisco Franco*, *Plaza de España*, *Primo de Rivera*, *Calvo Sotelo*... hartu zituzten. Athletic Bilbao futbol

klubari ere izena aldarazi zioten, eta *Atlético de Bilbao* izatera behartu zuten. Zarauzko Euromar hotela Ataungo Dionisio Barandiaran euskaltzaleak sortu zuen. Haren gogoa eta asmoa hotela *Euroitsaso* izendatzea zen, eta egin zuen ahalegina bide horretan. Alferrik, Fraga Iribarnek agintzen zuen orduan alor horretan eta ezinezkoa zen hotel bati euskal izena ematea.

Gerran kasu dramatikoak ere izan ziren: Donostiako Parte Zaharreko taberna baten jabea, orain Intza izena duen tabernarena, Andoni Irulegi izeneko gizona, fusilatu egin zuten Hernaniko kanposantuan. Baina horrekin nahikoa ez, eta karlistek haren taberna, orduan *Euskadi taberna* izena zuela, konfiskatu, eta izena aldatu zioten: *Bar España*.

Aldaketa horiek denak norabide batean izan ziren: euskaratik erdarara. Tarteka, beste norabidean ere gertatu izan dira aldaketak. Pio Baroja idazlearen aita Serafinek asmatua da Ategorrieta izena, Donostiako Gros auzotik Pasaiaarako bidean dagoen gaina izendatzeko. Garai batean hura Donostiaren muga zen eta, han, etxe bat zegoen sartu-irtenak kontrolatzeko eta zergak biltzeko. Etxeak ate gorri handiak zeuzkan eta jendeak *Puertas Rojas* deitzen zion. Hortik sortu zuen Barojak Ategorrieta.

Badirudi Serafin Barojaren euskaltzaletasunak jarraitzaileak dituela Orion. 2013an gure herrian inauguratu zen arraunerako etxea *Arraunetxe* izendatu zuten, egoki eta dotore asko. 2014an Euskararen Etxea zabaldu zuten Gasteizen, Montehermoso jauregian, eta oriotar batek proposatuta jarri diote *Oihaneder* izena. Gasteizko Kafe Antzokia izateko sortua da Euskararen Etxea, euskara ardatz izango duen kulturen eta sorgune izateko, hango aisialdian eta kulturgingintzan euskara txertatzeko. Eta *Oihaneder Euskararen Etxea* izena du, Iñigo Fernandez Ostolaza oriotarrak proposatuta. Esaera zaharrak dioenez, izena duenak izana du. Agian gehiago ere esan daiteke: nolako izena, halako izana.

IÑAKI ITURAIN

Aia-Orio: Hitzartutakoak hiru, adosteko gehiago daude



Orio eta Aiako tren geltokia . KARKARA

Demografikoki handia izan ez arren, geografikoki zabala da oso. Bi mila aiar inguru dira, 55.27 kilometro karratuan.

Mugan dauden herrietan egiten dute aiar askok bizitza, gertutasunagatik. Olaskoegia eta Santio Erreka auzokoak dute Oriora etortzeko joera handiena.

2011ko datuen arabera, Olaskoegian 183 aiar bizi dira eta Santio Errekan 256, aiarren %21,83.

Aisialdia Orion igarotzen duten aiar ugari daude, eta horietatik asko eta asko dira Orioko zerbitzuak kontsumitzen dituztenak.

Sinatutako hiru hitzarmen

Orioko kiroldegia zerbitzu defizitarioa da, kostuaren zati bat Orioko Udalak beregain hartzen du. Kopuru horren ehuneko bat Aiako Udalak ordaintzen

du, erabiltzaile aiarren arabera dena. 2014 urtean, esaterako, Orioko Udalak 160.000 euro ordaindu zituen eta Aiak 13.000, bazkideen %9,41 aiarrak baitziren. Dena den, kiroldegiko inbertsioak ere gehituz gero Orioko Udalak 241.200 euro gastatzen ditu.

TAOren hitzarmenean idatzita geratu zen Aian erroldatuta daudenek urteko kuota ordainduta -2015ean 45 euro- Antilla hondartza inguruan aparkatu ahal izango dutela udan. Trukean, Orion erroldatutakoek Aiako udako igerileku irekia erabili dezakete Aian erroldatuta daudenek bezala.

Tren geltokian dagoen komunaren gastuak ere bi Udalen artean ordaintzen dituzte: %65a Orioko Udalak -3.542 euro- eta %35a Aiako Udalak -1.908 euro-.

Oraingoz hitzartu ezin dena

Musikak, ordea, ez du bi Udalen artean harmonia sortzen. Erabiltzaileek baldintza berdinak dituzten arren, Aiako Udalak ez du dirurik jartzen. Hor desadostasuna.

381.170 euroko gastua du Musika Eskolak. Zati bat -120.000€-herritarren tasetatik ordaintzen da, 80.000 Eusko Jaurlaritzak jartzen ditu eta 181.170 Orioko Udalak.

Bildu: Negoziatzeko prest

Udalok zerbitzuak finantzatzekotan Oriokoak bezala Aiako Udalak diruz lagundu behar du. Arrazoia bakarra: Aiako Udalak jasotzen du herritar horiei dagoen fondo forala. Kiroldegia, TAO eta tren geltokiko komunaren mantenua bi udalek ordaintzen dute. Musika eskolaren kasuan zergatik ez? Udalbatzarrak onartutako eskaria idatziz jaso zuen Aia-ko alkateak. Ez dugu erantzunik jaso. Bildu negoziatzeko prest.

Orain: Bi euro

Muga administratiboak denboraren zulo beltzean galdutako irizpideekin jarrita egoten dira. Orio eta Aia artekoak ez digute oztoporik jartzen zenbait zerbitzutan elkarlanean aritzeko eta elkarbizitza sustatzeko. 2014ko abenduaren 26an eta 27an puzgarriak eta jolasak umeentzat Aiako frontoian: musu-truk Aiako umeentzat, bi euroren truke kanpotik datozenentzat. Garbi dago bi herrien arteko hitzarmen orokor bat behar dela.


EAJ: Elkarlaguntzea

Alderdikierien gainetik, bizilagunen arteko laguntza eta kolaborazioa gailendu behar da erakundeen arteko harremanetan.

Bi herrietako -Aia eta Orio- herritarren arteko sintoniak eta naturaltasunak erakundeetara ere iritsi behar du, eta elkarbanatzen ditugun gaien aurrean elkarriketak eta akordioetara iristeko desioa gailendu behar dira, ezarpenen gainetik.

■ LARDIZABAL HERRI ESKOLA

Euskara zaintzeko ekimena



Joan den abenduaren 3an, euskararen egunean, Lehen Hezkuntzako gela guztiek euskara zaintzeko asmoz, horma irudiak egin genituen eskolan.

Eskolako ikasle gehienok gero eta erdarakada gehiago erabiltzen ditugu euskaraz hitz egiten dugunean. Hor-taz, hilero egiten dugun ikasle on asan-bladan adostu genuen geletan bina horma-irudi egingo genituela. Kartel horiek Aiako toki nagusietan jarri geni-tuen gaizki esandakoak zuzentzeko..

■ ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Afrikatik Euskal Herrira



Gabonak ondoren ikasle berri bat eto-rrri zaigu gelara, Ibrahim. Malitik, Saba-libougou herritik, etorri da. Bi hizkun-tza hitz egiten ditu, bambara eta fran-tsesa. Euskaraz ez daki ezertxo ere ez, beraz, gure artean hala nola konpon-tzen gara. Gehienetan keinu bidez ulertzen saiatzen gara. Egoera zaila be-rarentzat, guretzat ere batzuetan ez da erraza, baina euskara ikasteko ahale-gin handia egiten ari da eta gu prest gaude laguntzeko. Ongi etorri Ibrahim!

■ ORIOKO HERRI IKASTOLA

Badatoz Pirritx, Porrotx eta Marimotos!



Gure ikastolak antolatutako saioa da gaur arratsaldean, eta hasi gara presta-keta lanetan! Maider andereñoak ederki margotzen gaitu gu, Pirritx eta Porrotx bihurtuz, eta saiora irrikatan joaten gara berak ikustera. Aurten gai-nera, badakigu gure inguruarekin lotu-ra berezia duela, itsasoarekin lotutako ikuskizuna baita. Pirritx eta Porrotx itsasoa garbitzeko lanetan hasiko dira eta primeran pasatzeaz gain pila bat ikasteko aukera izango dugu!



Jon Lizarralde

Arazo gehiegi konpontzeko

2014ko urriaren 5ean Orion ospatu ziren Kilo-metroetan, Orioko ibai al-boko paseoko zenbait banku bere tokitik erori egin ziren gai-nean gehiegizko pisua zutela eta. 3 hilabete pasa ostean eser-lekuek erorita jarraitzen dute. Ez dakit udaletxean banku ho-riek berriz ere ondo jartzeko ideia proposatu den ala ez, bai-na, nire ustez, erori aurretik ikusten ziren gisan ipini behar-ko lirake lehenbailehen. Egia da beste zenbait gauza ere kon-pondu beharrean daudela, hon-dartzako barra edota ibaiaren beste aldeko lur-jauzia, adibi-dez. Baina, Txurruka aldean pa-seoan bezain beste jende ibil-tzen ez denez, lehenik bankuak esertzeko moduan jarri behar-ko lituzketela iruditzen zait. Egia da, baita ere, paseoan ibaiari begira esertzeko nahiko eserleku badaudela, baina, hala eta guztiz ere, banku horiek funtzio bat betetzen dute ipini zirenetik, eta erorita dauden bi-tartean ez dute funtzio hori be-teko. Bankuez gain, paseoan aurrera eginez, lurra pixkanaka ibai aldera erortzen ari dela su-matu daiteke, eta hori ere ezus-teko larri bat gertatu aurretik konpondu beharko litzakeela uste dut.

Hiru hilabete pasa ostean, eserlekuek erorita jarraitzen dute

TIEN 21 **12** hilabete ingurerosik gabe **VISA**

Izarra Bideoa

260 €
199 €
ROWENTA 25V

229 €
199 €
ZANUSSI

319 €
279 €
ZANUSSI

PHILIPS
32" **249 €**
24" **179 €**
22" **149 €**

AURREZTU - % 60
TONERRA
homeroi bete eskero

5 €
9 €
8 GB
SANDISK 16 GB

TIEN 21 Eusko gudari, 44 • 943 833 881 **TIEN 21**

arkaitz taberna
••••• orio ••

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
Giro ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

HAUR ETA HELPUENTZAKO JANTZIAK

ROSA

GARBINE ARRILLAGA
ARITZAGA KALEA, 2 - TEL. 943 13 19 43
WWW.FACEBOOK.COM/ROSADENDADORIO

10% DESKONTUA FAMILIA UGARJENTZAT

MENDIZABAL
AROTEGIA
Neurriko armairuak
eta egurlanak

943 831 175
645 708 491
mendi@arotzgi.net

Altzerri bidea
Beti-Alai etxea
20810 Aia-Orio

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

ALOBIDE

FINKA ADMINISTRAZIOA

ZURE KOMUNITATEAREN ADMINISTRAZIOA GARDENTASUNEZ ETA SERIOTASUNEZ.

Deitu eta eskatu zure aurrekontua

Aloña Bideizabal Larrañaga
alobide@outlook.com

653 729 058 | 943 020 040
Orio | Zarautz | Getaria



Eneko Balerdi eta Kepa Junkera Durangoko aurkezpenean. MAIALEN SARASUA

Txapela kentzeko moduko saioa

Kritika Txapeldun

Dantza emanaldia, 'Txapeldun' obra Durangoko azokan aurkeztu zuen Eneko Balerdik abenduaren 8an, 19:00etan.

Lana, lana eta lana. Halaxe egin behar izaten du zerbait irabazi eta txapela jantzi nahi duenak. Langilea izan beharra dauka txapeldunak, berea lortuko badu. Eta temosoia, eta egoskorra. Ezin ahaleginean amore eman. Ekin eta ekin, bu-rua hotz mantenduz eta aginduak betez, behar denean. Hala iritsiko da, iritsi-ko denez, garaipena. Txalo zaparrada, besarkada, irribarre eta txanpan arteko irudiak datozkigu burura txapeldun handiez akordatzear. Dena ez da, ordea, gozo; gazitik ere badu lehiak. Dabilena erori egiten da, eta batek ez du beti nahi duen hura lortzen. Ezina, nekea eta etsipena. Bakardadea.

Ederki asko islatzen du *Txapeldun* obrak hori guztia. Hamaika kirolariren larruan ja-rrri zaigu Eneko Balerdi ordubeteko saioan, dantzaren bitartez irabazlearen izaera, jo-kamoldea eta pentsaeran sakondu nahian, garaipena inguratzen duten ertz guztiak ha-rrapatu nahian. Kepa Junkera eta Sorginak taldeko bi pandero-jotzaileraren laguntza izan du oholtzan horretarako.

Musika eta dantza elkarriketa bizioan senti litezke obra honetan. Eta elkarriketa eske ariko zaio dantzaria ikusleari ere, obraren barruan sarraraziz, dantza antzerkiare-kin uztartuz. Musika, dantza eta mugimenduaren laguntzaz, erraz identifikatuko ditu ikusleak kirolari mota ezberdinak. Oso gertuko sentitu nuen protagonista: haren izaera, darabilen hizkera... Gure kulturaren hain erroturik dugun lehia eta erronkaren oi-hartzunak bizi-bizi senti litezke. Oriotarren zein aiarren gustagarri eta gozagarri izango da obra eta ea laster hemen ikusteko modurik dugun txapeldun handi honen lana.

ELIZABETE MANTEROLA



Hezkuntza Orioko Curriculum besteentzat eredugarri

Orioko Curriculum Sortzen proiektu pilotua da, erreferentziarik eduki ez duena, baina erreferente bilakatu dena. Interesa ari da pizten herri curriculumak sortzen hasteko. Legebiltzarrean, Oñatin, Durangon, Hernanin eta Aramaion izan dira, oraingoz. Eta, bien bitartean, curriculumaren txostena ikastetxeetan egon da. Lehen hiruhilekoan izan dute txostena bai Zaragueta Herri Eskolan, bai Orioko Herri Ikastolan. Gaika oinarritzko dokumentuak aztertu eta baloratu dituzte irakasleek. Oro har, interesgarria iruditu zaie Orioko Curriculum osatzea.

@karkara.eus/orio/1422265757508



HASI TXIOKA

**Txiokatu inauterietan
#InauteriakOrio
traola erabilia!**



Kirola

Olidenek irabazi du apustua

Desafio bota zion Bikandik. Olidenek onartu eta apustua jokatu zuten urtarrilaren 11n, Aiako probalekuan. Etxean bezala sentitu zen Oliden, etxeko plaza baita beretzat Aia. 1.790 kiloko harriarekin jokatu zuten; atzetik hasi eta airean ondu zuen Olidenek aurreko idien marka. Jende ugari bildu zen probalekuan, zaletu asko. Bai aiar eta oriotarrak, baita Bizkaitarrak ere. Berritxutik ikusle asko joan zen Aiara - Jagoba Arrasate ere han izan zen-. Giro bikaina sortu zen, lehia sana. Olidenek eskertu egin nahi ditu Aiara apustua ikustera joan ziren guztiak.

Gizartea

Korrika martxoaren 22an pasako da Oriotik

1980an antolatu zuen AEKk lehenengo Korrika. Ordutik 18 edizio eta 34 urte igaro dira. Aurtengoa 19. Korrika izango da eta Euskahaldundu gaitezen lelopean Urepeletik Bilborako bidea egingo du. Korrika hasi eta amaitu arte, lekukoa pasatuko da eskuz esku eta kilometroz kilometro korrikalarien artean. Oriotik martxoaren 22an igaroko da, 15:49an, eta sei kilometroko ibilbidea izango du.

Kirola

Atorrasagasti Espainiako txapeldun

36-32 gailendu zen Euskadiko selekzioa. 4 goleko aldearekin irabazi zuen partida. Finala baina hiru egun lehenago, hamaikagatik galdu zuten talde berdinen aurka, Kataluniaren kontra. Dena den, euskaldunek ez zuten estrategia aldatu, beren onena ematera joan ziren. Eta, egindako esfortzuak fruituak eman zituen. Atzean sendo eta aurrean bizkor ibilita, 36-32 emaitzarekin irabazi zuen finala.

Ander Atorrasagasti retweeted

Maria Azkue @Mariaazkue · urt. 7

Disfrutaatuu lortuutako garaipena, urria eztala eunero irabazten!!
Zorionaak @Goenaga98 @AnderPoropo @GariBalenziaga5



Jon Azkue @jonazkue25 · urt. 11

Helburua lortuta!!! Brasilerako txartela poltsikoan dugula etxera bueltan.
Deskantsatzeko denboak gabe ligai berriz ekiteko prest!!!



4

18

...

Nadeth Agirre retweeted

CRO Orio AE @CRO_OrioAE · abe. 30

Webgune berria daukagu! Sarekatu ezazu!! orio-ae.com



Jabier Zabaleta retweeted

zigor etxeburua urbi @ZEtxeburua · urt. 12

@ja2er: Orioren historia soziolinguistikoa 'izugarria da Oriok egin duen ahalegina, bere hizkuntza propioaren alde' bit.ly/1DLVw2A



Hezkuntza

Etekin ekonomikoa baino, elkarlana gelditu da memorian

Hiru hilabete igaro dira txikota askatu zenetik. Urte bete baina gehiago lanean hasi zirenetik. Urte berezia izan da. Herriak ahaztuko ez duen urtea izan da, sentimendu eta emozio askokoa. Laburbiltzeko zaila. *Erria Txikota!* komunitatea elkartzeko aitzakia eman dio ikastolari, eta erakutsi die ausardiarekin txikota askatu eta aurrera joan daitezkeela. 2015 urtean sartu garen arren, oraindik, KMK 2014 ez dela amaitu diote Gema Etxabe eta Zigor Saizarrek.

@karkara.eus/orio/1420279871321



Hezkuntza

Behingoz, posible izango da

Urtero-urtero nahi berbera zuten Aiako Herri Eskolan: eskola berria. Aurten, ordea, urte berriari ez diote horrelakorik eskatu, ametsa bete baita. Eskola berria izango dute epe laburrean. Futbol zelaia bestaldean egingo dute, eta bertan egongo dira Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleak. Oraingo eraikinean espazio arazoak dituzte. Espazio komun gabe gelditu dira, horiek ikasgela bihurtzera derrigortuak izan baitira. Jangelan ere otorduetarako txandak egin behar izan dituzte, haurrak bazkaldu ahal izateko. Arazo honek amaiera izango du etorkizun hurbilean, eraikin berria egitean.

@karkara.eus/aia/1420277783490

Lau marka ondu zituzten, bi ofizial eta norberarenak bi



@karkara.eus/aia/
1421666181528



Estropada internazionala hizpide, Ingalaterrara bidaia



@karkara.eus/orio/
1420729244160



San Sebastian eguneko danborradak



@http://karkara.eus/orio/
1421827373712



AGENDA

Orio

Ate irekiak eta matrikulazioa

- Urtarrilaren 31n, Zaragueta eskolan ate irekiak, 11:00etatik 13:00etara.
- Otsailaren 2tik 13ra, matrikulazio aldia ikastetxeetan.

Inauteriak

- Otsailaren 14an, Inauteri festa. 17:00etan desfilea Bikamiotatik plazara. 18:00etan txokolatada eta erromeria Karelán.

Kirola

- Urtarrilaren 31n eta otsailaren 1ean, gaztetxoek eski irteera, Ametsa Gazte-lekuak antolatuta.
- Otsailaren 1ean, VI. Kros Txikia. 11:00etan Zaragueta eskolan.
- Otsailaren 21ean, Oriaren XXI. Traineru Jaitsiera. Orio AEk antolatuta.

Ikuskizunak

- Otsailaren 6an, *Koka Kola Eta Barea* antzezlan Inazio Tolosa eta Ramon

AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Auto partekatzea

- Orio-Miramón teknologia parkea joan-etorrirako autoa partekatzeko prest. 08:15ean Oriotik abiatu eta 13:30ean itzuli. Tf.: 655 702 613.

Salgai

- Salarako altzaria, gereziondoaren egurrarekin egindako liburutegia. Neurriak 221,5 x 243,5 x 37,5 dira. Prezioa negoziagarria da. Harremantetan jartzeko deitu 649289154 telefonora.
- 50 metro karratuko pi-

sua salgai edo alokagai Orio erdigunean, Donibane kalean. Bi logela, igo-gailua, 20 metro karratuko terraza. Sarrera pribatuarekin Iturbide kaletik. Tf: 609086436.

- Garajea salgai Orioko Goiko Kalean. Tf: 652727144.

- Pisua salgai Abaromendi kalean. 61 metro karratu eta 140 metro karratuko jardina. Bi logela, komuna, sala eta sukaldea. Erabat hornitua. Tf: 637419729.

- Pisua salgai edo aloka-

garrerekin, 22:30ean, Kultur Etxean. Sarrera 5€

- Otsailaren 7an, Danbolin Musika Eskolako ikasleen danta emanaldia. 17:00etan Karelán.

Irteera

- Otsailaren 27tik 29ra, Azpeitiara bizikidetza irteera Txurumuskik antolatuta. Izen-ematea otsailaren 12ra arte.

Aia

Matrikulazioa

- Otsailaren 2tik 13ra matrikulazio epea Lardizabal eskolan.

Kirola

- Otsailaren 7an, Euskadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketaren finala. 17:00etan probalekuan.

Podologia

- Otsailaren 28an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943131144

gai Kale Nagusian. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Alokairua 500€, salmenta 140.000€ Tf: 661 679 691. Paki.

Lan eskaria

- Asteburu etako lan bila pertsona helduen zaintzan. Paperak araututa eta erreferentziekin. 663117579
- Bertako emakumea lan bila. Portal eta ofizinen garbiketaren esperientzia, adinekoen zaintzan titulua. Tf: 617112916

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	02:53 eta 15:18	08:57 eta 21:11	
02	03:35 eta 18:58	09:39 eta 21:49	
03	04:12 eta 16:32	10:16 eta 22:25	
04	04:45 eta 17:04	10:49 eta 22:58	
05	05:17 eta 17:34	11:22 eta 23:31	
06	05:47 eta 18:04	11:54 eta ____	
07	06:18 eta 18:35	00:04 eta 12:26	
08	06:49 eta 19:07	00:37 eta 12:59	
09	07:22 eta 19:41	01:11 eta 13:34	
10	07:58 eta 20:20	01:49 eta 14:13	
11	08:41 eta 21:09	02:32 eta 15:00	
12	09:37 eta 22:15	03:26 eta 15:59	
13	10:53 eta 23:36	04:35 eta 17:12	
14	12:18 eta ____	05:54 eta 18:27	
15	00:55 eta 13:31	07:07 eta 19:33	
16	01:59 eta 14:30	08:09 eta 20:30	
17	02:52 eta 15:20	09:02 eta 21:20	
18	03:41 eta 16:06	09:50 eta 22:26	
19	04:26 eta 16:51	10:35 eta 22:52	
20	05:11 eta 17:35	11:20 eta 23:36	
21	05:55 eta 18:19	12:04 eta ____	
22	06:40 eta 19:04	00:21 eta 12:49	
23	07:27 eta 19:52	01:08 eta 13:36	
24	08:17 eta 20:44	01:57 eta 14:26	
25	09:14 eta 21:46	02:52 eta 15:22	
26	10:25 eta 23:03	03:56 eta 16:30	
27	11:51 eta ____	05:14 eta 17:49	
28	00:29 eta 13:13	06:38 eta 13:13	

ZAINZAKO BOTIKAK

NOIZ ZEIN HILABETE

- 1 ean, Mutiozabal
- 2an, Zulaika
- 3an, Etxeberria
- 4an, Larrañaga
- 5ean, Azaldegi
- 6an, Lasa
- 7 eta 8, Iriarte
- 9tik 13ra, Lasa
- 14 eta 15, G. Artiñano
- 16an, Zulaika
- 17an, Azaldegi
- 18an, Mutiozabal
- 19an, Iriarte
- 20an, Larrañaga
- 21 eta 22, Zulaika
- 23an, Azaldegi
- 24an, Lasa
- 25ean, Iriarte
- 26an, Zulaika
- 27an, Mutiozabal
- 28an, Etxeberria

- **Azaldegí:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio
- **G. Artiñano:** Zigorria kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

Usurbil Autoak



25 URTE ZURI ZERBITZUA EMATEN


- KONPONKETA-, TXAPA- ETA PINTURA-LANAK
- ORDEZKO IBILGAILUA ZUREA KONPONDU BITARTEAN
- ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE
- MARKA GUZTIEKIN EGITEN DUGU LAN
- ANTZINAKO AUTOEN ZAHARBERRITZEAN ADITUAK
- ESKUZKO AUTO-GARBIKETA DOAN KARROZERIA-LANAK KONTRATATZEAN
- AUTO BERRIEN  ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
- ASEGURUKO FRANKIZIAREN %50A GURE KARGU 2.500 EUROTIK GORAKO KONPONKETETAN
- PREZIOAK BARNEAN HARTZEN DITU BALBULA-ALDAKETA, BIRZIKLATZE-TASA, BEZ-A, GURPIL-OREKATZEA ETA ESKULANA
- MEKANIKA-, ELEKTRIZITATE- ETA DIAGNOSI-ZERBITZUA MARKA GUZTIENTZAT
- IAT (ITV) AURREKO AZTERKETA



Zumartegi Industrialdea
Aitezarra kalea, 24
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

Telf: 943 36 10 79
Fax: 943 36 62 92
Email: usurbilautoak@gmail.com

pertsona mundialak ditugu atsegin




Zaragueta
Herri Eskola Orri
dugu atsegin

Matrikula epea
Otsailaren 2tik 13ra
Ate irekiak
Urtarrilaren 31ean 11:00etatik 13:30era